

TECNALIA eta QUBIZ.team aliatu egin dira sentzorika kuantiko industrialak laborategitik merkatura eramateko

Helburua da laborategiko sentzorika kuantikotik merkaturako jauzia bizkortzea eta horrek efizientzia, segurtasunean eta kalitatean eragin zuzena izatea, betiere TECNALIAren Quantum Tech Lab-en laguntzaz baliatuz.

Bilbo, 2026ko urtarrilaren 7a. TECNALIA ikerketa eta garapen teknologikoko zentroak eta QUBIZ.team-ek —sentsorika kuantikoko eta metrologia aurreratuko *deeptech* aitzindaria, Bilbon egoitza duena— esparru-akordio bat sinatu dute industria-ingurune errealean jarduteko prestatuta egongo diren sentzore kuantiko sendo eta trazagarrien garapena bultzatzeko. Helburua da laborategiko sentzorika kuantikoaren merkaturako jauzia bizkortzea, eta horrek eragin zuzena izatea efizientzia, segurtasunean eta kalitatean.

TECNALIAren Quantum Tech Lab laborategian oinarritzen da aliantza. Laborategi hori aitzindaria da sentzore kuantikoak diseinatzeko eta fabrikatzeko, eta erreferentzia da Europan. Azpiegitura zientifiko-teknologiko berezia da, ultrabereizmeneko sentzorikarako sortua. Sentsorika horren oinarria diamanteko nitrogenu-hutsune zentroak dira eta ingurumen-baldintzetan funtzionatu du. Instalazioek magnetometria-aplikazioak prototipatzeko ekipamendua dute, eta alderdi hauek lantzeko prestatuta daude: identifikazioa, neurketa magnetikoa, irudien analisisa, metrologia eta kokatze-aplikazioak. Sentzore kuantiko horiek giltzarri izango dira aplikazio berrietan aurrera egiteko, hala nola osasungintzan, farmakoen garapenean, eta industrian, material berrien diseinuan.

Hauek dira merkatu nagusiak: bioosasuna (mikroskopiako sentzoreak, mahai gaineko NMR espektroskopia, magnetometro trinkoak, LabOnAChip-a, fluxua aztertze sistemak, garuneko interfazeak...) eta mugikortasuna (giroskopia, nabigazio magnetikoa, azelerometroak...).

Bestalde, QUBIZ.team-ek sentzore kuantiko ultrasentikorretan oinarritutako gailuak garatzen ditu, eremu magnetikoen, presioaren eta tenperaturaren aldaketa ñimiñoak detektatzeko gai direnak, bai eta molekula espezifikoak ere, eta helburu jakinetarako soluzioak ematen dituzten gailuetan integratzen ditu —elektronika txertatua, *edge*/IIoT, datu-geruza, etab.—; era horretan, industriaren benetako arazoetara hurbiltzen du detekzioaren zehaztasuna.

Ekimen hori BIQAIN – Bizkaia Quantum Advanced Industries estrategiaren barruan dago, zeinaren bidez Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) teknologia kuantikoen aldeko apustua egiten baitu gizarte-garapenerako eta enpresen lehiakortasunerako palanka gisa, eta ekosistemaren eskura jartzen baititu azpiegiturak, ezagutza eta zerbitzuak, era horretan industrian aplikazioa izango duten kasuak garatzeko.

Sentsore kuantikoak industrian

“Azpiegitura berritzaile horiekin jauzi bat egin dugu baldintza errealetan erabil daitezkeen sentsore kuantikoen I+Gan. QUBIZ.team-ekin, jauzi hori industria-balio neurgarri bihurtzen da”, adierazi du Joseba Laka TECNALIAko Unitate Digitaleko zuzendariak.

Jorge de la Herrán y Crespo QUBIZ.team-en fundatzaile eta presidenteak adierazi duenez, “industrian erabili ahal izateko gaitasun horren berme da QUBIZ.team-ek Europa mailan gero eta parte-hartze handiagoa izatea sentsorika eta metrologia kuantikoaren erreferentzia gisa”. Duela gutxi, euskal *deeptech* hori Strategic Advisory Board-eko kide aukeratu dute Europako Batzordeko Quantum Technology FET Flagship-erako —kontinentean teknologia horien bide-orria definitzen duen organoa—. “Era berean, QUBIZ.team European Quantum Industry Consortium-eko (QuIC - Europako Industria Kuantikoaren Klusterra) Sentsorika eta Metrologia Kuantikoko Aditu Taldearen buru da, eta sektoreko erabakiak hartzeko erdigunean kokatzen du Euskadi”, azpimarratu du.

“BIQAINen eta Lantiken iritziz, lankidetzak horrek argi erakusten du oparotasun sozioekonomikoaren motor bihurtu daitekeela zentro teknologiko handi baten eta *deeptech* motako startupen arteko aliantza. TECNALIA eta QUBIZ.team ekimenak lagungarriak dira ekosistema bultzatzeko, enpresa-proiektuak lankidetzan aktibatzeke, talentua eta inbertsioa erakartzeko eta industriari aplikatutako teknologia kuantikoetan Bizkaia erreferentziazko gune gisa kokatzeko”, azpimarratu du Valentin Garcíak, Bizkaiko Foru Aldundiko Teknologia eta Berrikuntzako Lantik Elkarteko Berrikuntza-zuzendariak.

Gainera, aliantza hori BasQ programaren testuinguruan kokatzen da. Programa hori Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek sustatzen dute, Euskadin teknologia kuantikoak garatzeko eta sustatzeko.

Bi erakundeek era honetako erabilera-kasuak landuko dituzte: aktibo kritikoaren monitorizazioa, ikuskapen ez-suntsitzailea, mantentze prediktiboa eta mapaketa magnetikoa. Era berean, pilotuak egingo dituzte zenbait sektoretan, hala nola aeroespazialean, automobilgintzan, osasunean, farmazian, genetikan eta trengintzan.

QUBIZ.team-i buruz

QUBIZ.team *deeptech* aitzindaria da, sentsorika kuantikoan eta metrologia aurreratuan, eta haren egitekoa da doitasun kuantikoa industriadako eta osasungintzarako soluzio sendo bihurtzea. Bilboko B Accelerator Tower (BAT) gunean du egoitza konpainiak, eta

sentsore ultrasentikorrak ikertzen eta garatzen ditu, zeinak inpaktu positibodun doitasun-neurketetara bideratuta baitaude, honako hauek detektatzeko: eremu magnetikoak, presioa, tenperatura eta molekula kaltegarriak (PFAS).

Nazioartean, QUBIZ.team-ek lidergo estrategikoa du: *European Quantum Industry Consortium*eko (QuIC) Sentsorika eta Metrologiako Adituen Lantaldeko burua da, eta Europako Batzordeko Quantum Flagship-eko *Strategic Advisory Board*eko kidea da. Gainera, QBC Summit 2025eko (CERN) zuzendaritza-batzordeko kide izan da, non "Quantum for Good" ekimena bultzatu baitu. Euskal ekosistema (BIQAIN) eta estatukoa Europako abangoardiarekin lotzeko lanean ari da konpainia.

TECNALIAri buruz

TECNALIA Espainiako ikerketa aplikatuko eta garapen teknologikoko zentro handiena da, Europako erreferentzia eta Basque Research and Technology Alliance-ko kide. Enpresa eta erakundeekin elkarlanean aritzen da, lehiakortasuna eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta hazkunde jasangarria lortzeko. Horretarako, 1.500 lagunetik gorako lantalde bat dauka, ikerketa teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez mundu hobe eraikitze konpromisoa hartu duena. Horregatik, TECNALIAren ikerketak benetako eragina du gizartean, eta onurak sortzen ditu bizi-kalitatean eta aurrerabidean. Hauek ditu jarduera-eremu nagusiak: fabrikazio adimenduna, eraldaketa digitala, trantsizio energetikoa, mugikortasun jasangarria, osasuna eta elikadura, hiri-ekosistema eta ekonomia zirkularra.

European Research Survey ERSk ospeari eta posizionamenduari buruz egindako azken azterketan (2022an egin da), TECNALIA lehen postuan ageri da I+G+Ban markak duen ospeari dagokionez.

www.tecnalia.com

Prentsarekiko harremanetarako kontaktuak

TECNALIA

Maite Gutiérrez 639 197 133

- **QUBIZ.team**

Jorge de la Herrán y Crespo, presidentea

jorge.delaherran@qubiz.team – 688 697 033

